


SAIAKERA

JOXE AZURMENDI



Ondoko artikulu hau aurrekoaren osagarri kontsidera dezakegu. Kasu honetan ere, egileak, Eustakio Mendizabalen lan poetikoa biltzen duen «Hitz etena» liburuan oinarritu du bere azterketa. Joxe Azurmendik gure herriaren historian, historiografiak aski gutxi aztertu duen gaia plazaratzen digu, «gerraren meditaziotik armen hartzera», gerraosteko belaunaldiarentzat kulturak eduki zuen garrantzia, kontzientzia horren mamitzea, hau da, «belaunaldi horren barne-mundu sentimentuzko, ideal, sinboliko guztia, nondik hasi zen ibiltzen bere barneko bidean», gehienetan politikoki sinplifikatu den gaia. Gogoetarako bideak eman behar direlakoan, hau da saiakera honen bigarren zatia.

ETAren hasierako gogoetaz

Gerraren meditaziotik armen hartzera

larrun «Azken gudate ondorengo / ogei ta sei urteetan / erderak arro dabiltz erronka / zazpi euskal errietan»: Ama txukatu malkoak poesiako aipamen bat da testu hau. «25 años de paz». (Beharbada 1965ekoa da poesia

hori, ez 67koa?). Euskara ihes egina dabil sukaldeetatik eta kaletik mendira. Eskoletatik iraitzita. Elizan ere itxita dauzka ateak... Okerrago, euskarak honez gero mendietan ere ez dizu bakerik («erdaldun dira men-

di-zaliak»); abertzaleengan ere ez du babesik (lotsa dira mintziara zaharraz): etsaien gorrotoak ezezik, «seme-alaben burla-ixekak / naramate il-obira!» (or. 39).

Begira: orain batzuk —Buesa eta,

egunotantxe— gure kontrako arrazoi bezala erabiltzen hasi dira, euskara ez dagoela gaizki Espainiaren pertsegizioagatik, ezpada euskaldunek berek dutela historikoki zabartu eta albo-ratu. Badirudi beraiek oraintxe deskubritu dutela eta, gu tentelok akordatu gabe bageunde bezalako airez, aldarrikatzen digute beren deskubrimendua telebista guztietan. Kriseluburutxo gorbatadun progre eta razional batzuek ere, ezin eramanik abertzaleak erru guztiak beti Madrili botatzen ibiltzea, oraintxe hauteman dute antza euskararen historia sozial tartaila. Arrazoi on bat Madril diskulpatzeko: «errua geurea da, eureka!» bozkariatu dira — alegia, «euskal arazoa euskaldunon arteko arazoa da» tesiaren bermagarria.

Ia hogeitamar urte bait da Txikiak, soziolinguista ez zenak eta historilaria ere ez hizkuntzarena, «Ama txukatu» idatzi zuela, euskaldunok beti jakin duguna jakinez

Nik ez dakit horiek zer irakurtzen duten, ezer irakurtzen badute. Euskaraz ez dutela dues irakurtzen, bistan dago.

EUSKARA ETA GERRAREN DEIAK. Ia

hogeitamar urte bait da Txikiak, soziolinguista ez zenak eta historilaria ere ez hizkuntzarena, *Ama txukatu* idatzi zuela, euskaldunok beti jakin duguna jakinez. Kontzeptuetan zein irudietan, hagitz lehenagoko tradizio bati (Arrese Beitia, Lizardi) lotzen zitzaien; eta urte horietan jada euskaltzaleen artean domeinu arruntarrunteko ikusmoldea espresatzen zuten. Ideia horiek Salbatore eta Koldo Mitxelena, Zaitegi, Krutwig, Txillardeggi eta ia edozeintsu autoreri kausi dakizkioke batere neke gabe gerraondoan. Koldo Mitxelenaren kalera beharra, Zaitegiren Euzko Gogoa, etab., nola esplikatzen dituzte bestela? ETaren sorrera ere nik ez dakit horiek nola ulertzen duten, abertzaletasun tradizionalarekin



«Hobendunak» asasinatuak izan dira, eta gainera kalumniatuak, madarikatuak zeruan hala infernua, mundu guztiaren burlako jarriak, zakur akabatuak bezalaxe piloan hobiratuak eta begien bistatik borratuak.

etena alegia eta proiektu berria, sakaketa modu horietekin ez bada. (Benturaz nahiago dute ETAk «ezer berririk» historian signifikatu al duen ez pentsatu: baina signifikatu du, euskal kontzientzia guztian signifikatu du). Ez dago gerraondora mugatu beharrik ere: kontu hori aspaldi ohartua da euskaltzale guztiek, atzeritarrek ere (Humboldték adibidez).

Aurrera jarraituz, euskara bakarrik ez da: abertzale zaharren ikara, etorkinen uholdeak (Or. 53), Elizaren jarraera inperiala, gerraondoko egoera guztia da Txikiaren gogartea eragin duena poesietan zehar. Euskarak dei egiten dio (39-40); esan dugu, Txikiak bokazio bat legez asumitu duela bere euskaltzaletasuna. Baina Txikiak sentitu zituen deien artean sarkorrena, niretzat, gerrarena da.

MITOAK ETA ERREALTATEA. Txikiaren Euskal Herrian berez dezagun halako bi: Euskal Herri abstraktua tradizionala da, «mitologikoa»; aldiz bere esperientziakoa, oso erreal eta pertsonala. Agian denoi halaxe gertatu zaigu garai hartan, eskema batzuetatik irteeran beste berri batzuen bila. (Eta beharbada horregatixe ez zait batere gustatzen, guk euskaraz aspaldi egindako lanak, beste batzuen Mediterraniaren deskubrimendu miragarriak izatea orain espainolez hogeitamar urte geroago).

Ideologia ezagun bat isladatzen da Euskal Herriaren irudi mitikoan: herri guztiz antzinakoa, arrotzekin nahastu gabekoa, etab. «*Inoren mende etzan Erri bat / ginduzan belaunik-belaun / eta inongo uztarri gabe / gaurdaño diagu irauñ*» (52). Bere poesia du (zuen, behintzat, guretzat): Ernio mendia, adibidez, monumentu nazional bat bilakatzen da: «*Gaztelu sendo, goitia / Lartaunen aulki auskaitza / euri, aize ta eguzkiak / printzaturiko ar-*

Beste herri guztien antzera euskaldunok ere mitologizatu egin genuen iragan historikoa. Baina guk, inuxenteok, antimitologo pila daukagu gainean gu derrigor ilustratu behar-eta



Euskarak dei egiten dio, Txikiak bokazio bat legez asumitu duela bere euskaltzaletasuna. Baina Txikiak sentitu zituen deien artean sarkorrena, gerrarena da.

kaitza» (98). Alferrik ahalegin bidezuten erromatarrek euskaldunak menperatu nahita. Ernio lagun, dakizun moduan apurtu zituzten hementengo menditarrek Augustoren legioak (ikus 99). Ernio, kementsu eta beti garai, orain ere burua tente dago,

aberria zaintzen. Are, bere gurutzearekin txuri-txuri, «euskal sinismen agerkai» dugu: hemen Euskal Herri jentilak eta kristauak batere problema gabe bategin dute. Euskal Herriaren batasuna denboraren erreka guztietan barrena.

Posible da Txikiak euskaldunen gerren kontua erromatarrekin irakurria izatea in *Euzko Gogoia* 9/10 (1954) 139-142. Testua, Arantzazuko ikasle gazte batena hain zuzen, patriotismo lokalez berotua (autorea errezildarra), gaiaren trataera historikoa baino literari poetikoagoa da «Ernio garbi» tituluarekin. Idazkitxo



Belaunaldi honen barne-mundu sentimentuzko, ideal, sinboliko guztia, nondik hasi den ibiltzen bere barneko bidean, ia ezer ikertu gabe dago.

ohargarria ipuin zaharren erabilerari honez gero zein sentido metaforiko geratzen zitzaion ikusteko; eta ez gutxiago konparazio baterako, gerraondoko lehen-lehen uhinaren «gustu literari» eskolastikoa zein izan den, baliapide florezko kitschez («euskara landu»-estiloa», laster aldatuko bait da hori ere. Baina, orain kondairaren balio mitikoari gagozkiola, gure begien aditasun guztia merezi dute Txikiaren poesian hurrengo bertso hauek:

Zure izena
entzun orduko
gugan zenbat gogoeta
sortzen zaizkigun
asele ipuin
unkigarriaz beteta...!

Maitagarri! sorgin-guden
euskal-txoko gurgarria,
asaben oroigarritzat
zauzkagun arkaitz-arria!

«Mitoak dira»: dio kritikoak; «maitagarriak dira halere!», osteratzen du

Txikiak. Dokumentuetan ez daukagun asaben oroigarria, ipuinetan daukagu, geure maitasunaren araberako geuk eginda.

Beste herri guztien antzera (Home-

Gurutz Jauregik, bere liburuan, ezusteko beste gauza askoren artean dio, ETAk euskal «mito historiko guztiak» bereganatu omen zituela. Berak jakingo du non

rorekin hasita, edo Bibliarekin Israelen), euskaldunok ere mitologizatu egin genuen iragan historikoa. Baina guk inuxenteok ez dugu inuzentzia libre, besteek bezala, eta antimitologiko pila daukagu gainean gu derrigor ilustratu behar-eta. Alegia ni euskal mundura hurbildu nintzenerako,

mendabal zakarra zebilen, aurreragoko euskaltzaleak eta abertzaleak, denak apologistak eta mitologistak omen, jo eta xahutzeko eta gauzak objektibo eta zientifikoki jartzeko.

Orduko jada jendea oso kritikoa eta ilustratua zen, «esentzialismoak» errotik superatzen bortizki ari zen, egin beharrezko mesprezuak eginda zeuden Sabin Aranari, mito demokratista ustelak aspaldi erraustuak ziren, denek bazekiten Leloren kanta faltseria hutsa zela historikoki eta are gehiago Altabizkargo kanta. Txikiak halaxe irakurritan zeukan *Mila Euskal Olerki Eder-en*, 1954. L. Micheleenaren *Historia de la Literatura Vasca*-n irakurri zuen halaber, 1960, euskaldunen eta erromatarren arteko gerra-kontuak «legendak»

direla. Fausto Arocena baitan, *Gui-puzcoa en la Historia*, 1964, erromatarrek eusko lurra ezin konkistatu izan zutelako istorioa («asombrosa afirmación») xobinismoaren fantasua barrugarria dela eta gerra kantabrikoen kokapenaren gorabeherak eusko lurrean «pintorescas discusiones». Hots, orduan eskuarteko irakurgai izaten genituen guztietan berdin. Ybarra y Bergèren *Gestas Vascongadas*, bestela nikuste nahiko espantagarrian bertan, 1951, egun inork aintzat hartzen ez duen teoria «kapritxoso»tzat jotzen ziren erromatarren eta euskaldunen gerra-ipurriak.

1965erako, Argizale sinatzen zuen batek, lasai asko «*Los mitos en la historia vasca*» artikulua publikatu zezakeen komunisten Arragoa aldirian, etab. etab. Hau da, ez nuke esaten jakingo, Eustakio Mendizabal gaztetxoak Lazkaon zenbateraino egin duen berea izpiritu historiko-kritiko hori. Edonola ere korrante horretan zegoen jadagoneko, adinagatik baino ez bada ere.

Gurutz Jauregik, *Ideologia y estrategia politica de ETA* liburu antz alde

eta modez ezustekoan, 1981, 93 ss, ezusteko beste gauza askoren artean dio, ETAk euskal «mito historiko guztiak» beregandu omen zituela. Berak jakingo du non. Ez bait da derrigor ETaren merito bat izango (ni ados nago, batere meritorik ez zaio aitortu behar: demokraziaren kontra doa), baina, nik uste besterik dela ikusi ikusten dena eta, perspektiba historiko piska batekin, ikusi beharra ere dagoena: gehienez ere, alegia, inguru guztian gertatzen ari zen izugarrizko desmitologizazio jeneralizatu baten hondarren batzuk agian...

GOGOETAK, SENTIMENDUAK,

BAKEA. Atzera Txikiaren testura itzuliz eta beste gai batera: kritikak loriazko epika nazional handi asko utzi ez bazigun antzinatean gutxienez kontsolamendurako, fantasian, errealitatean oso presente narratiba tristeena geneukan, azkeneko gerra-rena, mitologia gutxiarekin, etxeko oroitza baten bildurtietan.

Guretzat gerra, orain jende gazteak apenak imaginatuko duena, ez zen antzinako historia bat. Sukaldean zegoen. Kanean. Marmor zuriko erorien zerrendan Elizako hormetan, bika-riorearen autoritate garratzean, maisu maketoan, auzo batzuekin kultibatu behar genuen zuhurtasun uzkurtean, errazionamendua saltzen zuen den-darian, rreketea bait zen, makien kontuetan, gariaren kontrabandoan. Nolabait geure esperientzian, ikarutako jendarte eta denboretan bizitza-zeak umeari ematen dion ikararen aurpegiarekin. Franco eta gerra, etengabeko presentzia bat zeukate-nak izan dira guretzat urte askoan.

Bihotzondoa eta seriotasun beltza une berean, pasio bero bat, teinka dramatiko luze mantendu bat, Txikiak seguru asko ez du «Zuen Gomutan» bezala (or. 71 ss) beste poesia batean inon lortu. Ez dakit oraingo irakurleari zer efekto dion. Tragikoa da. Belaunaldi bere fede pertsonalenean desengainatu baten tragedia. Gerra-nondoko Monzon, Salvatore Mitxelena eta holako poesiarekin batera irakurtzea komeni da seguruen, testuingurua (eta are tonua bera) berro-raingotzeko. Testu funtsezko bat,

Guretzat gerra, orain jende gazteak apenas imaginatuko duena, ez zen antzinako historia bat. Sukaldean zegoen. Kanean. Marmor zuriko erorien zerrendan Elizako hormetan, maisu maketoan,...

ezpai gabe, Txikiaren entrega sakonenean bakozi legez ulertzeko (euskararen deia, hildakoen deia...) pertsona. Txikiaren euskal historiaren kontzeptua, edo sentimentua, ulertzeko, ez gutxiago: haren gogoe-ta.

Il ziñaten, il! Obeki esan, il ziñuten!

Jainko ta doneen izenean il gañera!

*Ta zuen odol errugabea, lurraren gañera
ixil ixuri zan, illen eremu beltzean.*

«Zuen odol errugabea» esaten da negartsu, baina «errudun zinaten!», ekiten dio bertan gogor hurrengo estrofak. Problema, horixe bait da: «Abertzaleen / hobena bait zenuten, hots, Herria maitatzea» (or. 71). Hoben horrengatik zilegi izan da haiek garbitzea, eta Jainkoaren eta santuen izenean tiroka garbitzea gainera: haien abertzaletasuna ez da epaitu erruz-

koa zentzu politikoan bakarrik (Espainiaren aurka bekatu), baizik baita erlijiosoan eta sakralen ere eta horixe batez ere (Jainkoaren eta zeruaren aurka bekatu), kondenazio eternoa eta absolutua mereziz beraz.


Abertzalea izatea hoben gaiztoa da. «Gorri»ekin joatea hoben gaiztoa da. (Gogora Orixe, *Quito'n arrebarekin*; Salvatore Mitxelena). Baina hoben hobenagoa gerra egin eta galtzea da: «gabaz ezkutuan illok / etzenuten inongo onespenerik merezi /... Galdu egin bait zenuten!». (Gogora Txillardegia, «Kristautasuna eta mundutar garaitzapena», in: *Huntaz eta Hartaz*, 1965, 7-16). Hobena hobenean, fineko, euskaldun jaio izatea bera da sinpleki:

Doakabe! Zorigaiztoko jaio zinaten!


Zorigaiztoko, bai, mila bider zorigaiztoko.

Euskaldun izate utsak badu obenik asko!

Poesia hori (71-75), gerrak litera-



«ETaren pentsamendua» esaten dena ez bait da jende haren pentsamendua izan denaren beste bat, nahiz bai bestela erakutsia. Komunikatu batean adina dago ETaren pentsamendu jatorra poesia batean.



Txikiaren poesian,
herstu-herstu lotuta
indargintzaren gaiarekin
bakearena dator, inork
usteko ez lukeen maiztasuna
duena

turan izan duen islada aztertzerakoan, derrigor ikusi beharrekoa da. Ikusi beharrekoa, belaunaldi berriaren gerrak zer ikusi daukan aztertzeko orduan orobat. Bere horretantxe beste gabe aztertzeko ere ikusgarria, formalki den saio handia eta guzti Aurraitzen ereduari atxekiz. (Aurraitzen errazegin ahaztuaren poesia, berearen aurrean Txikiak hemen aipatua, nik uste Miranderen oihartzun eta erritmo tankera nabarmena duena —zeinek aztertuko ditu gauza hauek denak?— ikus bedi in *Olerti II*, 1966, 41-42, «Azken opageia»). Ez dut jarraituko hemendik.

Gure garaian oso ezaguna zen Seminarioan Gerardo Diegoren «El ciprés de Silos» poesia llaburra, buruz ikasten genituenetakoa:

*Enhiesto surtidor de sombra y sueño
que acongojas al cielo con tu lanza.*

Hori ere kuriosoa da, baina gerrako inpresio doluzkoena beharbada, gerra entzutez bakarrik ezagutu dugunontzat, mendkuzko hilketena eta

bide bazterretako edo hilerri horma ondoetako eharzketa anonimoena izan da. Inpresio ikaragarri eta ikarazko horien zirrada guk etxe barruan bizitu dugu. Beraz, «hobendunak» asasinatuak izan dira, eta gainera kalumniatuak, madarikatuak zeruan hala infernua, mundu guztiaren burlako jarriak, zakur akabatuak bezalaxe piloan hobiratuak eta begien bistatik borrotatuak. Eta «belaunaldi berriaren oroimenetik aztuak» izan zitezten egindako senperren bestial guzti hori isiltasuna haien gainean totala izan zedin, bera bilakatu da hildakoen garrainsi urragarriena, altzifre ilunaren oihua gauen, «*negra torre de arduos fillos*».

Ai il-erriko

*illen zaintzalle zipres-mamu beltz izugarriak,
leize-zulo, ta amiltegi sakon-gorriak,
bi segunduz, bederen, itz-egin balezakete!*

Berriro interpuskatzen da ordea bapatean erruki sentimentuzko isuria: «Beude ixil! beude mutu!». Hobe da horrelaxe, bere lazgarritasun guztiarekin:

Beude beraz ortan mutu,

lur onek, Euskal-lur diraun artean

zuen şemeen semeek

belaunik belaun oroi zaitzaztean,

ta apentza gosez ao—

zabal diran obiak ikustean

Aberri-askatasun-miña

mamitu datzaien biotz barnean (or. 73).

Hildako izangabeen zaintzaile nekosta beltzak deiadar bat euskal gauean bilakatu dira: eta arbaso erorien garrainsi isilaz, «bildurra galduta-askatasun bidean zutik» jarri da garteria berria (75; konparatu or. 55-56rekin).

Belaunaldi honen barne-mundu sentimentuzko, ideal, sinboliko guztia, nondik hasi den ibiltzen bere barneko bidean, ia ezer ikertu gabe dago. Inoiz tratatu edo ukitu denean, politikoki sinplifikatu edo eragabeki demonizatu bakarrik egin da. (ETA n ibili behar duen jendeak ez dauka normala eta humanoa izanez haste-

rik). Bakarrik Joseba Zulaika permatu da, nik dakidala, ETAren fenomenoaren parametro humanoetan kontsideratzen, ulertzeko saio batean: haren *Violencia vasca: metàfora y sacramento*, 1990, biolentziaren apologia ez beste guztia izan arren, ez zen gure progre eta mandarinen sozietatearentzat gusto-gustokoa artera, eta tolerantziaren isiltasunezko hauts delikatu batek estali du.

Egia da, ETAren historiako kasuak seguruena ez dira izan herri guztietan Itziarren bezain apropos ereduak interpretazio antropologiko iradokior baterako, ia drama bibliko baten elementu literari guztiekin. Baina hasi zitekeen eztabaida hortixe. Hurbilketa saio —partzial, baina— interesgarri bat zen, ETA kulturaren eta balioen sistema baten barruan ulertzeko. Uste du, herri-herriko elementuez gainera mentalitatean eta psikologian, hala-nola Ama Birjinaren kontuak etab., jokoan daudela nolabait esan eskola-kulturako iruditeria, kontzeptuak eta balioak ere, eta horien transformazioa ikertuz jarraitzea, testu idatzietan, merezi lukeela.

Gauza bat da ETAren barruan jendearen esplikazioa, eta beste bat ETAren barruaren esplikazioa: hori ez legoke aski esplikatuta hura gabe. «ETAren pentsamendua» esaten dena ez bait da jende haren pentsamendua izan denaren beste bat, nahiz bai bestela erakutsia. Komunikatu batean adina dago ETAren pentsamendu jatorra poesia batean.

Hain zuzen guztiz ohargarria da niretzat, esaterako, biolentziaren gaia noiz hasten den agertzen eta nola garaiako literaturan. Xeheki behatu beharreko puntua genuke. (Ezertarako ikerketa gabe, jende batek aurretik dena badaki: hala Eduarko Uriartek Euskal Telebistan, Mario Onaindiaren programa batean Europako terrorismoei buruz, dogma ziurrenaren ziurtasunez aseguratatu digu, ETAren biolentziaren esplikazioa katolizismoan dagoela: arrazoirik ez du bat eman esplikazioa esplikatzeko). Justu «ez arrazoi senaz, —bildurrez, indarrez, metralleten bidez baizik» (or. 72) injustuki altxatutako aginte baten aurka, ezin ahal

izan da altxatu, indargintzaren (biolentziaren) zilegitasun arazoa kontzientzian planteatu eta erantzunen bat pentsatu gabe. Are gutxiago zen hori posible, nik uste, hura zen bezalako giro katoliko papistan.

Konkretuki Txikiaren indargintzaren gogoeta apurra heriotzaren meditazioari lotuta dago, Seminarioan ikusi diogunaren arras bestelako poesia modu zindoan. Ez da jadanik zilegitasuna planteatzen, baizik merezi al duen borroka armatuari bizitza entregatzea. «*Nuestras vidas son los rios/ que van a dar en la mar/ que es el morir*» temarekin hasten da (Seminarioan buruz ikasi ohi zen beste poesia bat), cfr. or. 42: «*gizonon pausok itsasora/ dijoazen urak dira*»...

Bainan heriotz guztiak ez dute erranahi berdina.


Denok hiltzen gara: Goardia Zibila hiltzen da eta gudari abertzalea hiltzen da. Baina heriotza denek ez dute berdin balio. Faxisten morroi bizi eta hiltzeak txorinoaren lumak baino pisu gutxiago, herriagatik hiltzeak mendiaren pisua dauka (Ib.).

Ideal gabe morroi iltzeak ez du deus ere balio.

Erriagatik il danak aldez bizitzari argi dago.

Ur guziak ez dira gaziak erio denak ez erio.

Herstu-herstu lotuta indargintzaren gaiarekin bakearena dator: Txikiaren poesian inork usteko ez lukeen maiztasuna duena. Baina frankismoan bakea ez zegoen aipaterik, diktaturaren termino propagandazko faborittoa zela kontuan hartu gabe («axolagabekoaren bake illuna», or. 79). Bakea batez ere Gabonetako tema izaten da: hala garatzen da 1966ko «Gabon Gaua» poesian (63-64). 22 urteko estudiante beneditar gaztearen Eguerriak, ihes egin gabe hilezkorren eliseo ametsurdinezkora, badu errealitatearen sentimentu abertzalea eta soziala. Euskaldunok, dio, elkartu egin behar dugu: maitasunean duelako bakeak oinarri (113-114). Ur-



Askotan historia idazten dutenek, nahi duten historia idazten dute. Nahi ez dutena ez da egon. Gure historiatik berreskuratzeko gai bat, indargintzaz eta bakeaz ETaren hasieretako gogoeta da.

teak geroago, Iparraldera ihes egin da, Eguerriak berriro gogarazi dio bakearen gaia. Txikiak, ostera, Eguerriak izango ez duten gartzelako presoak eta iheslariak ditu gogoan, «*Gabon Gabarik gabe/ oherako den gaztea*» (41). Bakea bai, baina «egiazko bakea» inbokatuko du.

Askotan historia idazten dutenek, nahi duten historia idazten dute. Nahi ez dutena, ez da egon. Iruditzen zait gure historiatik birreskuratzeko gai bat, indargintzaz eta bakeaz ETaren hasieretako gogoeta dela. Norbaitek nola orain bapatean Gandhi predikatzen digun, esaterako, alaiki, gutxienez miragarria da, ETako hastapenetan, Santamariaren obran, etab. etab., Izipiritu Handi horren baliagarritasunaz guretzat hainbat gogoeta lehendik egin izan denean gure atzo bertako historian. Baina bakearen gogoetan eta itxaropenean geuk ere ez dugulako sekula nekatu behar, merezi luke historia hori birreskuratzea.

Itxaropenari erreferituz amaituko dut beraz. Jon Aranok, haren eskuizkribuak bilatu, miatu eta argitaratu

dituenak, Lehen eta Bigarren Olerki Koardernoak irazkintzen diharduela, ohartu digu oso poliki: «Ia beti, olerki amaieretan, esperantzan sinesten du. Itxaropena beti argi». Egia da (ik. or. 40, 41, 42, 43, 53, etab.). Baina ez dakit sinestu, ala eman nahi: erresistentziako esperantza armatu bat da, ez itxaropen serafiko bat. Gure esperantza ez dago merke.

Ene herria

ez etsi...

Noizbait beharko baita iritsi.

Kantuari ez utzi

borrokaren dantzara jautsi.

Ez etsi

Ez etsi

Ez etsi.

Ik. halaber or. 80-81. Etsi nahi ezaren itxaropena da («*no quiero, ni quiero quererlo*»). Euskadirena zein egoera larria den dakienaren fermutasuna. «*Arrotzen menpen/ datzan/ erri ertsituraren/ itxaropen*» (77), esan du berak behin, esanguratsuki Erri zaararen udaberri deritzon poesian ■